

GUGGENHEIM BILBAO

Prentsarako txostena



Ikusgai azaroaren 20an

Kandinsky

Babeslea:

Fundación
BBVA

Guggenheim Bilbao Museoak Vassily Kandinskyri eskainitako erakusketa antolatu du, eta BBVA Fundazioan harro gaude gure babesari esker halako erakustaldi bat hezur-mamitzen lagundu ahal izan dugulako, Kandinsky abstrakzioaren ezinbesteko figura eta XX. mendeko artearen adierazgarri nagusietako bat baita.

Gaur egungo egoeran, gainera, jarduera ekonomikoa eta kulturala berreskuratzeko zereginen laguntzea zeharo pozgarria zaigu BBVA Fundazioan. Gure gizarte-nortasunaren parte diren espazio komunak geureganatu nahi ditugu berriz, eta zeregin horretan, museoak ezinbesteko plataforma dira gure nolakotasuna eta historia ulertzea ahalbidetzen diguten kultur ondare handiak hurbiltzeko eta partekatzeko.

Erakusketa honek jatorri errusiarreko margolariaren funtsetako obra-sorta garrantzitsua biltzen du. Kandinsky berandu hasi zen margotzen, 1896an ekin baitzion pintura ikasteari München, 30 urteak beteak zituela; bere bizitzako fase ezberdinek —Errusian, Alemanian eta Frantzia bizi izan zen, eta bi mundu-gerra igaro zituen— eta, bereziki, bizitoki izan zituen herrialdeetako abangoardia-mugimenduekin izan zituen hartu-emanek eragin nabarmena izan zuten bere lanean.

Erakusketa bikain honek proposatzen duen ibilbide kronologikoaren bitartez, bisitariak Kandinskyren obran murgiltzeko aukera izango dute, eta haren pinturaren bilakaerari erreparatu ahal izango diote, erraz antzemateko moduko objektuz eta eszenaz osatutako ikonografia erakusten duten lan goiztiarretan hasi, eta abstrakziora egin zuen erabateko jauzia agertzen duten margolanetara, denak ere artistak oinarri-oinarrizkora jotzeko zuen nahiaren isla.

Honako aukera hau ez galtzera gonbidatu nahi zaituztet, abagune paregabea baita egile berezi honen lana hautemateko eta koloreek zein formek bizi propioa nola hartzen duten ikusteko.

Erakusketa Museoko talde osoaren eta, bereziki, Megan Fontanella komisarioaren ahalegin eta lan apartari esker egin ahal izan da.

Carlos Torres Vila
BBVA Fundazioaren Presidente

Kandinsky

- Datak: azaroak 20, 2020 – maiatzak 23, 2021
 - Komisarioa: Megan Fontanella, Solomon R. Guggenheim Museum-eko Arte Moderno eta Artelanen Jatorrien Arte-arduraduna
 - Babeslea: BBVA Fundazioa
-
- Erakusketa hau New Yorkeko Guggenheim Fundazioaren funts bikainetatik datorkigu, eta XX. mendearen hasierako pinturaren berritzaile nagusietako baten bilakaera artistikoa erakusten du, lau atal geografikotan banatuta.
 - Kandinskyk balio estetiko tradizionalen kontra egin zuen, eta beste gai batzuk proposatu zituen, artistaren “barne-premia” eta artearen ahalmen eraldatzailearen bidez etorkizun espiritualagoa izateko gogoia bakarrik oinarritzat hartuta.
 - Haren ingerada kaligrafikoak eta forma erritmikoak jatorri figuratibotik urrundu ahala, Kandinsky abstrakzioa garatzen hasi zen, eta “paletaren botere ezkutua” deiturikoa sortzen.
 - Kandinskyrentzat, formarik abstraktuenean ere eduki espresiboa eta emozionala dute: triangeluak ekintza eta agresibitatea irudikatzen ditu; karratuak, bakea eta lasaitasuna; eta zirkuluak, alderdi espiritualak eta kosmikoa.

Guggenheim Bilbao Museoak *Kandinsky* dakarkigu, Vasily Kandinskyren (Mosku 1866 – Neuilly-sur-Seine, Frantzia, 1944) pinturen eta paper gaineko obrak erakusketa osatu bat. Bertako obra guztiak New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Foundation-en funts bikainetakoak dira. Erakusketak BBVA Fundazioaren babesa du, eta XX. mendearen hasierako pinturaren berritzaile nagusietako baten bilakaera erakusten du, zeina abstrakzioaren aitzindaria eta estetikaren teorialari ezaguna izan baitzen. Pintura mundu “naturalarekin” zeuzkan loturetatik askatzeko ahaleginean, Kandinskyk beste gai batzuk aurkitu zituen, artistaren “barne-premia” bakarrik oinarritzat hartuta. Kezka hori bizitza osoan zehar izan zuen.

1900eko hamarkadan eta 10ekoaren hasieran, München zegoela, Kandinsky kolorearen eta konposizioaren espresio-aukerak aztertzen hasi zen. Hala ere, joan egin behar izan zuen Alemaniari, bat-batean, 1914an Lehen Mundu Gerra piztu zenean. Moskura itzuli zen artista eta, han, haren lexiko piktorikoa abangoardia errusiarraren esperimentu utopikoak islatzen hasi zen, zeinak garrantzi handia ematen baitzien forma geometrikoei hizkuntza estetiko unibertsal bat sortzeko modu gisa. Gero, Kandinsky irakasle sartu zen Bauhaus arte eta diseinu aplikatuko eskola alemaniarrean; eskolak bezala, Kandinskyk ere uste zuen artea pertsonak eta gizarteak eraldatzeko gai dela. Baina berriz ere Alemaniari joan behar izan zuen, 1933an nazien presiopean

Bauhausak atek itxi ondoren. Parisen aldirietara joan zen Kandinsky, eta surrealismoak eta natur zientziek eragina izan zuten haren ikonografia biomorfoan.

Kandinsky oso lotuta dago Guggenheim Fundazioaren historiarekin, beste edozein artista baino gehiago. Fundazioa 1937an sortu zen, New Yorken, baina Museoaren fundatzailea, Solomon R. Guggenheim industrialaria, 1929an hasi zen Kandinskyren obren bilduma egiten, eta hurrengo urtean Dessau hiriko Bauhausen ezagutu zuen artista. Erakusketa honek margolariaren bilakaera osoa irudikatzen du, lau atal geografikotan banatuta, haren garapen artistikoko garai nagusien arabera.

Hasiera: Munich

Kandinsky bere jaioterri Mosku eta Odesa (gaur egungo Ukraina) artean eman zuen haurtzaroa, eta familiak artearekiko eta musikarekiko gustua piztu zion txikitatik. Zuzenbide- eta ekonomia-ikasketak egin zituen, baina, 1895ean, norabidea aldatzea erabaki zuen, eta Moskuko Kushnerev arte grafiko enpresaren arduradunetako bat bihurtu zen. Urtebete geroago, inpresionismo frantseseko erakusketa batean eta Richard Wagnerren Lohengrin operan inspirazioa aurkitu ondoren, Munichera joan zen arte-ikasketak egitera. Errusiako oroitzapenak (esaterako, kolore biziz apaindutako altzariak eta nekazarien etxeetako botozko irudiak), historizismo erromantikoa, poesia lirikoa, folklorea eta fantasia dira nagusi haren obra goiztiarretan.

Kandinsky eta haren bikotekideak, Gabriele Münter artista alemanak, European eta Afrikako iparraldean barrena bidaiatu zuten 1904 eta 1907 artean; 1908an, berriz ere Munichera itzuli ziren, eta bertan bizitzen jarri. Kandinsky 1908an eta 1909an sortu zituen paisaia bavariar koloreaniztunek grabatuaren elementu konpositiboak dituzte; esaterako, argi eta garbi bereizitako formak eta perspektiba laua. Koadro horiek ez dute zerikusirik kolore-ukitu arinen bidez egindako aurreko lan neoinpresionistekin.

1909an, Kandinsky gero eta estilo espresionistagoa bereganatu zuen; pixkanaka, natura-eszenak irudikatzeari utzi zion, eta istorio apokaliptikoak margotzen hasi zen. Haren lanean errepikatzen diren motiboetako batzuek (adibidez, zaldiak eta zaldikoak) balio estetiko tradizionalen aurkako borroka eta artearen ahalmen eraldatzailearen bidez etorkizun espiritualagoa izateko irrika sinbolizatzen dituzte. Figurazioaren arauen kontrako borroka horrekin jarraituz, Kandinsky ziur zegoen koloreak, formak eta lerroak edozeinek ulertzeko moduko baieztapenak sor zitzaketela artistaren "barne-premiatik" abiatuta.

Munichen bizi zela, Kandinsky hiriko abangoardiako talde garrantzitsuenen buru izan zen, besteak beste, Falangea (Phalanx) eta Municheko artisten elkarte berria (Neue Künstlervereinigung München) izenekoena, eta funtsezko zenbait tratatu argitaratu zituen, hala nola *Über das Geistige der Kunst* (*Espirituzkoa artean*). 1911n, Zaldun Urdina (Der Blaue Reiter) sortu zuen Franz Marcekin batera. Oso elkarte heterogeneoa zen, baina hura osatzen zuten artista guztiak kolorearen adierazkortasun-ahalmena eta formaren erresonantzia simbolikoa (sarritan espiritual) interesatzen zitzairen.

1913rako, lerroaren eta kolorearen menpe jarriak zituen bere lanean gehien errepikatzen zituen gaiak; adibidez, zaldia eta zaldikoa, muino uhinduak, dorreak eta zuhaitzak. Haren ingerada kaligrafikoak eta forma erritmikoak jatorri figuratibotik urrundu ahala, Kandinsky abstrakzioa garatzen hasi zen, eta “paletaren botere ezkutua” deiturikoa sortzen.

Eremu kosmikoak: Errusiatik Bauhausera

1914an Lehen Mundu Gerra piztu zenean, Kandinskyk joan egin behar izan zuen Alemaniatik, errusiarra zelako, eta Moskura itzuli zen; han, abangoardiak hizkuntza estetiko unibertsal bat sortu nahi zuen, forma geometrikoak erabilita. Gabriele Münterekin hautsi eta beste kide alemaniar batzuekiko lotura eten ondoren, Kandinskyk bere garaikide errusiarren esperimentuak aztertu zituen, baina konturatu zen ekoizpenean oinarritutako ikuspegi objektiboa ez zetorrela bat berak artistikoki bilatzen zuen espiritualtasunarekin.

1922an, Kandinsky Alemaniara itzuli zen Nina emaztearekin, eta irakasle sartu zen Bauhaus arte eta diseinu aplikatuko eskolan. Walter Gropius arkitektoak sortu zuen eskola, eta estatuaren babesu zuen. Han ere, Kandinskyk bezala pentsatzen zuten; hau da, arteak banakoa eta gizartea eralda ditzakeela. Kandinskyk kolorearen eta formaren arteko elkarrekikotasuna eta haien efektu psikologiko eta espiritualak aztertzeko jarraitu zuen, eta plano gainjarrietan erabiltzen zituen forma geometrikoak nagusitu ziren haren lexiko pikturikoan. Aldaketa hori, hein batean, Errusian ikusi zuen lan motaren eraginari zor zitzaion. Hala ere, Kandinskyk konstruktibisten arte “mekanizistatik” urruntzen jarraitu zuen, baita Kazimir Malevich bezalako suprematisten arte “purutik” ere, eta nabarmendu zuen formarik abstraktueneke ere badutela eduki espresiboa eta emozionala. Kandinskyrentzat, trianguluak ekintza eta ageribitatea irudikatzen ditu; karratuak, bakea eta lasaitasuna; eta zirkuluak, alderdi espiritualak eta kosmikoak.

Une horretan jarri zuen arreta Kandinskyren obran Solomon R. Guggenheim bildumagileak. Irene emaztearekin eta Hilla Rebay aholkulari artistikoarekin batera, Dessauko Bauhaus eskolan bisitatu zuen artista, eta *Konposizioa 8 (Komposition 8, 1923)* monumentala erosi zion, beste pieza batzuek gain. Kandinskyk 1933ra arte jarraitu zuen irakasle-lanetan Bauhaus eskolan, orduan itxi egin behar izan baitzuten gobernu naziaren presioagatik.

Mundu ñimiñoak: Paris

Kandinskyk Parisko Neuilly-sur-Seine auzoan eman zituen bizitzako azken 11 urteak. 1933ko abenduan joan zen Parisera, nazien menpeko Alemaniatik, Berlingo Bauhaus eskola itxi eta irakasle-lana galdu ondoren. Oso garai emankorra izan zen Kandinskyrentzat, ezegonkortasun politikoa eta geroko eskasia gorabehera. Artistak materialekin esperimentatu zuen (adibidez, harea eta pigmentua konbinatuta), eta haren lexiko formalak paleta leunagoa eta forma biomorfoak aurkezten zituen. Nahiz eta Kandinskyk espezimen organikoekin eta entziklopediak zientifikoekin bilduma egin Bauhauseko garaian, 1934ra arte ez zuen halako ikonografiarik sartu bere lanean. Fase horretako konposizio nahaspilatsuek organismo bizien mundu ñimiñoen antza dute,

surrealismoaren eraginagatik (nagusiki, Jean Arp-en eta Joan Miróren lanak) eta natur zientzietan zuen interesagatik (bereziki enbriologia, zoologia eta botanika). Kandinskyk oso gustuko zituen pastel-tonuak (arrosa, morea, turkesa eta urre-kolorea), zeinek haren jatorri errusiarreko koloreak gogorarazten baitizkigute.

Amaiera aldera, Kandinskyk sintetizatu egin zituen aurreko garaietako elementuak, Bauhaus eskolan egon zenekoak eta bere garaikideen jardunetik bereganatutakoak. Eskala handiko formatuetan egin zuen lan, eta bere mihise espresionistak nahiz kondaira errusiarrei buruzko lanak gogora ekartzen dituzten hondo ilunak erabili zituen. Halaber, Paul Klee eta Parisen aktibo jarraitzen zuten surrealistak gorarazten dituzten motiboak erabili zituen, nahiz eta erreparatu izan azken horiekin elkartzeko. *Zirkuluaren inguruan (Autour du cercle, 1940)* lanean, eragin hori ikusten da forma biomorfo ludikoen konposizio nahaspilatsu eta dinamikoetan. 1942 erdialdera, gerraren eskasiak taula gaineko obra txikiak egitera behartu zuen artista, ordura arte Parisen egiten zituen mihise handiak alde batera utziz. Hala ere, zientzietan zuen interesa gero eta hein handiagoan islatzen zuten irudimenezko konposizioak sortzen jarraitu zuen Kandinskyk, biologiarekin erlazionatutako ilustrazioak zituzten aldizkari eta entziklopedietan inspiratuta.

Bigarren Mundu Gerran, agintari alemaniarrek konfiskatu egin zuten Kandinskyren eta beste margolari moderno batzuen obra, "arte degeneratua" zela esanez. Sobietar Batasuneko estalinistek museoak itxi zituzten, eta biltegi-talara bidali zituzten Kandinskyren margolanak. 1944an hil zen artista, 78 urte zituela, ekoizpen oparoa utzita.

Solomon R. Guggenheim, industrialaria eta izen bereko museoaren sortzailea, 1929an hasi zen Kandinskyren lanaren bilduma egiten, eta, arte modernoa oso gustuko zuenez, 1939an Pintura Ez-objektiboaren Museoa (Museum of Non-Objective Painting) sortu zuen New Yorken, Solomon R. Guggenheim Museum-en aitzindaria, hain zuzen. Gaur egun, Guggenheim Foundation-ek oinarritzko artista honen 150 pieza baino gehiago ditu.

DIDAKTIKA: KANDINSKY. ETENGABEKO IKERKETA

Didaktika proiektuaren barruan, eremu didaktikoak, online edukiak eta jarduera bereziak diseinatzen ditu Museoak; erakusketen osagarri dira, eta bertako obrak ikusten eta ulertzen laguntzeko tresnak eta baliabideak eskaintzen dituzte.

Horrela, aretoen ondoko korridorean dagoen hezkuntza-guneak etengabe ikertzen ari zen artista baten irudia aurkezten digu. Kandinskyk artea ulertzeko eta gauzatzeko modu berriak esperimendu eta aurkitu zituen, *Über das Geistige der Kunst (Espirituzkoa artean)* eta beste testu eta entsegu batzuetan azaldu zuen bezala. Halaber, Kandinskyri asko interesatzen zitzaizkion irakaskuntza eta diziplinarteko elkarlanak, eta XX. mendearen hasieran aitzindaria izan zen abstrakzioaren garapenean. Hori guztia da atal honetan (eta webguneko *Ba al zenekien...?* atalean) azaltzen dena.

Erakusketari lotutako jarduerak:

Hitzaldia: Kandinsky eta Guggenheimdarrak (data zehazteke)

Megan Fontanellak, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-eko arte-arduradun eta erakusketa honen komisarioak, erakusketa osatzen duten obren garrantzia azalduko du, eta Vasily Kandinskyk Guggenheim familiarekin izan zuen lotura bereziaz ere arituko da.

Partekatutako hausnarketak

Museoko Arte Ardura eta Hezkuntza arloetako profesionalek eskainitako bisitaldi paregabeak, erakusketa berrien edukiari buruzko ikuspegi desberdinak eskaintzen dituztenak.

- Arte-arduradunen ikuspegia (data zehazteke): Megan Fontanellak, New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum-eko arte-arduradun eta erakusketa honen komisarioak, erakusketako obra nagusiak erakutsiko ditu.
- Funtsezko kontzeptuak (data zehazteke): Marta Arzakek, Hezkuntzako eta Interpretazioko Zuzendariordeak, obren alderdi orokorrei eta didaktikoei buruz hitz egingo du bertaraten direnekin.

*Babeslea: Fundación Vizcaína Aguirre.

Obren aurrean eskainitako mikrokontzertuak (azaroak 21 eta 28, eta abenduak 12 eta 19)

Kandinskyren obren ondoan musikaz gozatzeko aukera, Ensemble Kuraia taldearen eskutik. Kandinskyri asko gustatzen zitzaion zentzumenekin esperimintatzea eta haiek akuilatzea. Adimena eta espiritua aktibatu nahi izaten zituen soinuen eta koloreen bidez, eta horretarako uztartu egiten zituen biak, baita Arnold Schönberg bezalako musikari handiekin esperimintatu ere.

Hitzaldia: "Artea, zientzia eta sinestesia" (abenduak 15)

Saio honetan, koloreak soinuekin edo usainekin lotzea ahalbidetzen duten giza burmuinaren berezitasunak azalduko ditu Elena Vecinok, Biologia Zelular eta Histologiako katedradunak. Izan ere, Kandinskyk emozio espezifikoekin lotzen zituen kolore eta forma zehatzak.

Sormen-saioa: "Kandinsky etengabeko ikerketan" (urtarrilak 21)

Tailer honetan, artistaren kezka pertsonalak islatzen dituen pentsamoldea ezagutuko dute parte-hartzaileek, baita bakarrik edo beste diziplina batzuetako espezialistekin elkarlanean esperimintatzeko zuen etengabeko interesa ere. Aitziber Aguirrek emango du tailerra.

* **Baliteke jardueretan aldaketak izatea. Maskara jantzita eduki behar da une oro.**

KATALOGOA

Erakusketaren harira, Guggenheim Bilbao Museoa erakusketako obrak biltzen dituen katalogo bat argitaratu du; liburuak Tracey Bashkoff-en entsegu bat eta Karole P.B. Vail-ek idatzitako sarrera labur batzuk ere jasotzen ditu.

Solomon R. Guggenheim Foundation

1937an sortu zen Solomon R. Guggenheim Foundation. erakusketa, hezkuntza-jarduera, ikerketa-proiektu eta argitalpenen bidez arte modernoa eta garaikidea sustatzeko, ulertzeko eta aztertzeko helburuarekin. Guggenheim museoen nazioarteko sarean New Yorkeko Solomon R. Guggenheim Museum, Veneziako Peggy Guggenheim Bilduma, Guggenheim Bilbao Museoa eta Guggenheim Abu Dhabi izango dena daude.

Solomo R. Guggenheim Museum ikono arkitektonikoa da, "espirituarentzako tenplua" eta arte eta arkitektura garaikidearen elkargunea. Frank Lloyd Wright-ek AEBn egin zituen zortzi eraikinetako bat da, eta, duela gutxi Munduko Ondare izendatu du UNESCOk.

Museoari eta Guggenheimak munduan egiten duenari buruzko informazio gehiago lortzeko, ikusi guggenheim.org

guggenheim-bilbao.eus/eu/erakusketak/kandinsky
#KandinskyGuggenheimBilbao

Azaleko irudia:

Vaisly Kandinsky

Lerro beltzak (Schwarze Linien), 1913ko abendua

Olio-pintura mihise gainean

130,5 × 131,1 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim sortze bilduma, dohaintza 37.241

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020

Informazio gehiago:

Guggenheim Bilbao Museoa
Komunikazio eta Marketin Saila
Tel.: +34 944 359 008
media@guggenheim-bilbao.eus
www.guggenheim-bilbao.eus

Prentsak erabiltzeko irudiak
Kandinsky
Guggenheim Bilbao Museoa

Prentsarako online irudien zerbitzua

Museoaren webguneko prentsa-atalean (prensa.guggenheim-bilbao.es) erregistratuz gero, erakusketen eta eraikinaren bereizmen handiko irudiak eta bideoak deskargatu ahal izango dituzu. Oraindik konturik ez baduzu, erregistratu eta deskargatu behar duzun materiala. Erabiltzailea bazara, idatzi erabiltzaile-izena eta pasahitza, eta zuzenean eramango zaitugu irudietara.

- Irudiak *Kandinsky* erakusketarekin erlazionatutako publizitatea egiteko soilik erabil daitezke. Erakusketa 2020ko azaroaren 20tik 2021eko maiatzaren 23ra arte egongo da jendearentzat zabalik Guggenheim Bilbao Museoa.
- Osorik agertu behar dira, moztu gabe, ezer gainjarri gabe eta manipulatu gabe, azaletan izan ezik. Kasu horretan, artistaren estudioak maketa onartu beharko du. Erreproduzioekin batera, artistaren izena, obraren izena eta data, jabetzaren erreferentzia, copyrighta eta argazkiaren kreditua adierazi behar dira.
- Online argitaratutako irudiak segurtasun-neurri elektronikoen bidez babestu behar dira.
- Irudiek gehienez 1.000 pixeleko bereizmena izango dute alderik luzeenean. Online argitalpeneko fitxategiak txertatuta egon behar du, eta ezin da izan deskargagarria.
- Irudiak ezin zaizkie transferitu hirugarrenei edo datu-baseei.

Informazio gehiago lortzeko, jarri harremanetan Guggenheim Bilbao Museoko prentsa-sailarekin, telefonoz (+34 944 359 008) edo posta elektronikoen bidez (media@guggenheim-bilbao.eus).

Vasily Kandinsky

Eliza (Kirche), 1907

Xilografia, irudia:

13,3 × 14,7 cm; orria: 18,2 × 15,6 cm

The Hilla von Rebay Foundation, Solomon R. Guggenheim Museum-entzako epe luzerako mailegua, New York (1970.141)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Mendi urdina (Der blaue Berg), 1908–09

Olio-pintura mihise gainean

107,3 × 97,6 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma, dohaintza (41.505)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Paisaia fabrika baten kebidareekin (Landschaft mit Fabrikschornstein), 1910

Olio-pintura mihise gainean

66 × 81,9 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma, dohaintza (41.504)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Inprobisazioa 28 (bigarren bertsioa) [Improvisation 28 (zweite Fassung)], 1912

Olio-pintura mihise gainean

112,6 × 162,5 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma, dohaintza (37.239)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Lerro beltzak (Schwarze Linien), 1913ko abendua

Olio-pintura mihise gainean

130,5 × 131,1 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma, dohaintza (37.241)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Pintura ertz zuriarekin (Bild mit weißem Rand), 1913ko maiatza

Olio-pintura mihise gainean

140,3 × 200,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma, dohaintza (37.245)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Plazer txikiak (Kleine Freuden), 1913ko ekaina

Olio-pintura mihise gainean

110,5 × 120 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma (43.921)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Zirkuluak beltzaren gainean (Krugi na chyornom; Kreise auf Schwarz), 1921

Olio-pintura mihise gainean

136,5 × 119,7 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma (46.1050)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Karratu beltzaren barruan (Im schwarzen Viereck), 1923ko ekaina

Olio-pintura mihise gainean

97,5 × 93,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma, dohaintza (37.254)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Konposizioa 8 (Komposition 8), 1923ko uztaila

Olio-pintura mihise gainean

140,3 × 200,7 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma, dohaintza (37.262)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Zenbait zirkulu (Einige Kreise), 1926ko urtarrila-otsaila

Olio-pintura mihise gainean

140,7 × 140,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim
sortze bilduma, dohaintza (41.283)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Soraio (Unerschüttert), 1929ko otsaila

Akuarela eta tinta paper gainean

35,4 × 49,1 cm

The Hilla von Rebay Foundation, Solomon R. Guggenheim Museum-entzako epe luzerako mailegua, New York (1970.94)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Marraduna (Rayé), 1934ko azaroa

Olio-pintura hareaduna mihise gainean

81 × 100 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim sortze bilduma (46.1022)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Kurba nagusia (Courbe dominante), 1936ko apirila

Olio-pintura mihise gainean

129,2 × 194,3 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim sortze bilduma (45.989)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Zirkuluaren inguruan (Autour du cercle), 1940ko maiatza-abuztua

Olio-pintura eta esmaltea mihise gainean

97,2 × 146,4 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim sortze bilduma (49.1222)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Vasily Kandinsky

Zatiak (Fragments), 1943ko maiatza

Olio-pintura eta gouachea kartoi gainean

41,9 × 57,9 cm

Solomon R. Guggenheim Museum, New York, Solomon R. Guggenheim sortze bilduma (49.1224)

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020



Erfurth Hugo (1874–1948)

Kandinskyren erretratua

Paris, Centre Pompidou - Musée national d'art moderne - Centre de création industrielle

Argazkia (c) Centre Pompidou, MNAM-CCI, Dist. RMN-Grand Palais / Guy Carrard

© Vasily Kandinsky, VEGAP, Bilbao, 2020

